

Rainergy euria erabiliz energia elektrikoa sortzeko sortutako produktu berritzailea da. Gailuaren goiko aldean dagoen plaka berezi batek euri tanten talkaren bidez energia sortzen du, eta energia hori barruan dauden baterietan metatzen da, ondoren gailu elektronikoak kargatzeko erabiltzeko. Produktua tamaina desberdinetan eskainiko da: etxeetako terrazetarako egokiak diren txikiak eta espazio zabaletan edo zelaietan jartzeko pentsatutako handiagoak, eguzkia edo haizea behar izan gabe energia sortzea ahalbidetuz.

Produktua bereziki egokia da energia berriztagarrien aldeko eta ingurumenarekiko arduratsuak diren pertsonentzat, batez ere euri asko egiten duen eskualdeetan. Eguzki plakak dira konpetentzia nagusia, baina Rainergy-k kokapen eta tamaina aniztasunari esker bereizten da. Gainera, jasangarritasuna sustatzen du, teknologia aurreratua erabiltzen du (sentsore piezoelektrikoak eta mikroturbinak), eta hasierako prezioa altuagoa izan arren, euri askoko lekuetan azkar amortizatzen da. Produktua, gainera, Garapen Jasangarriko Helburuekin bat dator, hala nola energia garbia, berrikuntza industrial eta klima-alaketaren aurkako ekintza.